

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

2019ko UZTAILAREN 19TIK
ABUZTUAREN 3RA

TESTU
POETIKOEN DEIALDIA

Organiza:

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

 FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA

 cultura
navarra.es

Colabora:

 AYUNTAMIENTO
DE OLITE
ERRIBERRIKO
UDALA


 Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala

TESTU POETIKOAK: GURE KLASIKOETATIK LORCA ARTE

Erriberriko Antzerki Jaialdiak antzezlanen zikloa eskainiko du; eta gaur egungo publikoari egile klasikoetatik poetika eta garaikideak Federiko Lorca arte hurbiltzea dute helburua. Antzezlanak herriko toki ez-konbentzionaletan egingen dira eta soilik konpainia nafar profesionalen kargura izanen dira. Deialdi honen azken xedea da hitza, musika eta poesia hedatzea, hitz batez, antzerkia herriko bazter guztietara eta jende guztiarengana eramatea.

Horretarako, Jaialdiak parte-hartze proposamenak bidaltzeko gonbita egiten die zikloan parte hartu nahi duten Nafarroako Foru Komunitateko konpainia profesional guztiei, ondoko betebeharrak eta baldintzekin bat:

- 1. Arte eszenikoaren Nafarroako egile eta/edo konpainia profesionalak aurkezten ahalko dira.** Arte eszenikoaren profesionaltzat jotzen dira arte eszenikoekin lotuta dagoen jarduera ekonomiko nagusia duten enpresa eta profesionalak, jarduera jasota baldin badago ekonomia-jardueren gaineko zergan. Forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera eta auzotasuna edo helbidea Nafarroako Foru Komunitatean behar dute izan.
- 2. Antzezlanek jatorrizkoak izan beharko dute,** kontuan hartu gabe estreinatu diren ala ez.
- 3. Antzezlanen hartzailak mota guztietako jendea izan daitezke:** familiak, gazteak edo helduak. Edonola ere, beharrezkoa da esatea antzezlanari nori zuzentzen zaion.
- 4. Testuak gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon daitezke** eta antzeztuko dira idatzita dauden hizkuntzan.
- 5. Antzezlari bakoitzak 15 eta 20 minutu bitarteko iraupena izanen du.**
- 6. Proiektua** posta elektronikoaren bidez bidaliko da **difusion@navarra.es** helbidera, gaian honako hau adieraziz: **TESTU POETIKOEN 2019KO DEIALDIA.**
Proiektua PDF artxibategi erantsian aurkeztu beharko da eta egileak edo konpainiaren arduradunak sinatu beharko du, adieraziz izen-deiturak, telefonoa eta helbide elektronikoa. Halaber, proiektua aurkezten duen konpainiaren edo profesionalaren EJZren kopia bidaliko da.
- 7. Proiektuarekin batera dokumentazio hau aurkeztuko da:**
 - Aurkezpen labur orokorra.
 - Behin betiko testua edo horren zirriborroa.
 - Talde artistikoaren osaera (zuzendaria eta aktore zerrenda).



- Iradokizuna, lana antzetzeko tokiari buruz.
- Eszenografiaren deskribapena, baita proiektuaren ekoizpenerako garrantzitsuak diren beste elementu batzuen ere.

Proiektua hautatzen bada, proiektu horren konpainiak talde artistikoa ekarriko du, baita antzetzeko behar den eszenografia ere.

8. Parte-hartzaile/konpainia bakoitzak **proposamen bakarra aurkezten ahalko du.**

9. Eskabideak aurkezteko epea **2019ko maiatzaren 27ko 14:00etan bukatuko da.**

10. Gehienez ere **4 proiektu hautatuko dira**, eta horiek Erriberriko Antzerki Jaialdiaren programazio ofizialean sartuko dira.

11. Batzorde batek hautatuko ditu parte hartuko duten proiektuak. Batzorde horretako burua Jaialdiko zuzendari artistikoa izanen da eta honako hauek kide:

- Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, Carmen Oroz Iribarren.
- Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko burua, Yolanda Osés Pérez.
- Foru Komunitateko arte eszenikoen arloan entzute handikoak diren 2 aditu
- Idazkaria: Kultur Ekintza Zerbitzuko goi mailako teknikari bat.

Batzordeak proiektuen egokitasuna baloratuko du irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren kalitatea eta proiektua deialdiaren xedearekin, helburuarekin eta eremuarekin bat etortzea.
- Proposatutako produkzioaren kalitatea eta eszenaratzeko egokitzapena.
- Talde artistikoaren eta talde teknikoaren egokitzapena.
- Testuaren kalitatea, originaltasuna deskribatutako egoeren planteamenduan.
- Aukera datorren denboraldian proiektua ekoizteko eta proiektatzeko Foru Komunitateko beste gune batzuetan.

12. Emaita **2019ko ekainaren 15a baino lehenago jakinaraziko da.**

13. Jaialdian zehar **hautatutako lanak 3 aldiz antzetzuko dira**, ahal dela, asteburuan (ostiral, larunbat eta igandeetan, uztailearen 19tik abuztuaren 3ra bitartean).

Konpainiak **3.000 euroko ordainsaria jasoko du, guztira** (zergak barne).

14. Ordainketa emanaldiak bukatu ondoren eginen da, fakturak aurkeztuta.

15. Testu Poetikoaren Zikloa **Errege-erreginen Jauregian izanen da**, baita herriko beste gune edo txoko enblematikoetan edo deskubritu gabe daudenetan ere (plazak, kaleak, barne patioak, balkoiak...) Konpainiak toki bat proposatuko du bere ikuskizuna antzetzeko; hala ere, Jaialdiak erabakiko du behin betiko kokapena.

16. Testuaren egileak kontserbatuko ditu bidalitako proiektuaren gaineko eskubide guztiak eta, bere lana hautatzen badute, Erriberriko Antzerki Jaialdiari lagako dizkio lana antzetzeko eskubideak, jaialdiak irauten duen bitartean, baita jaialdia sustatzeko, hedatzeko eta artxibatzeke egiten ahal diren irudien eskubideak ere.

17. Hautatutako konpainiek **konpromisoa hartzen dute parte hartzeko Erriberriko Antzerki Jaialdiak Testu Poetikoaren Zikloa** sustatzeko antolatzen dituen jardueretan.

Harremanetarako:

Amalia Jiménez Atienza

Goi mailako teknikaria

Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Atala

Tel.: 848 42 46 86

Email: ajimenea@navarra.es

difusion@navarra.es

Iruñean, 2019ko maiatzaren 3an